



Abisu, Furundarena, Otamendi, Uri, Torrealda, Auzmendi, Oleaga, Sors, Zubelzu eta Sorozabal, ekitaldiaren amaieran. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

# Bigarren absolutiorantz

‘Egunkaria auziko’ absolutioaren ostan, auziaren kontra indarra egin dutenei eskerrak emateko ekitaldia egin dute. Auzi ekonomikoa irekita dagoela ekarri dute gogora.

## Oihana Elduaen

Indarrak bilduta, elkar hartuta, bat eginda. Halaxe aritu da Euskal Herria *Egunkaria auziaren* kontra, bost auzipetuen irizian. «Zuek zarete sententzia honen meritudun nagusiak», esan zuen Joan Mari Torrealdaik. Eskertuta agertu ziren oso, eta emandako «solidaritatea, elkartasuna, atxikimendua, sostengua, babesa eta maitasuna» txalotu zituzten. Nolanahi ere, gogora ekarri zuten *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoa ere epaiketara bidean dela eta zigor eskaera gogorrak daudela auzipetuentzat. Orain arte bezala, bat eginda, laguntzen jarraitzeko eskatu zieten Euskalduna jauregian bildutako ei. «Bigarren absolutioarekin amaitu behar du gure historiak».

*Egunkaria auziaren* kontra zerbait egin duten guztientzat zen igandeko jaialdia. Euskaldunan bildu zirenak aurretik ere egonak izango ziren elkarrekin, auzia salatzen. Donostiako manifestazioan agian, edo Bilbokoan. Kursaalako kantaldian ere izan zitekeen. Kezka aurpegiarekin izango ziren haietan, amorratuta eta haserre. Euskaldunan, beste-lako giro bat arnasten zen, ordea. Nabarmena zen poza, eta irribarratsuetatik ziren aurpegiak.

Guardia Zibilak *Egunkaria* itxita abiatu zuen auziaren kontra lan isilean aritu direnentzat omenaldi txiki bat izan zen. Kantuz, dantzaz eta hitzez osatutako jaialdia. Guardia zibilek kontrolatzen zuten zuztelako soinufrogara larri iritsi ziren txalapartariekin—Juan Mari Beltran eta beste hiru neska-mutil—hasi zen eki-

taldia, eta Juan Mari Torrealda auzipetuaren hitzekin amaitu. Absolutu dituzten beste auzipetuak—Xabier Oleaga, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Iñaki Uri—eta epaitzearen gainerako bostak—Jose Mari Sors, Ainhoa Abisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena—agertokian zirela, guztiak zutik, txalo zaparrada indartsuarekin.

Torrealdaik nabarmendu zuenez, «Madriren jakin dute herri oso bat zegoela auzipetuen atzean, herri oso bat zegoela epaituen aulkian, bere hizkuntzarekin». Indarrak bilduta aritzearen garrantzia azpimarratu zuen, eta «inori lezioak emateko» ez direla nor onartu ostan, beren ustez jarraitu beharreko bidea hori dela nabarmendu zuen: «Gurean emaitza ona izan du».

Hala ere, beraiek absolutu egin dituzten arren, ez dira ahazten «epaiketaren gurpil zoroak» jiraka jarraitzen duela, eta hargatik, ekitaldian bertan ziren Udalbiltzako auzipetuei animoak eta elkartasuna igorri zizkien: «Gure eskarmentutik, zorte ona opa diegu, gure zorte bera, gutxienez».

Udalbiltzako auzipetuak ez ziren izan publikoan eseri ziren aurpegi ezagun bakarrik. Politikan aritzen direnen ordezkariak zabalago zegoen, baita sindikalgiaren ere, eta zer esanik ez kultur mundukoena. Azken horiek izan

## Elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratu zuten Torrealdaik eta Mendigurenek

ziren batik bat agertoki gainean ere, Naroa Iturri eta Udane Goikoetxea kazetariak gidatuta.

Miren Amuriza eta Maddalen Arzallus bertsolariak izan ziren eztarria berotzen aurrean. Amurizak darbukarekin eta Arzallusek gitarrarekin bi bertso

sorta abestu zituzten. «Zazpi urtean tamalez, konponbidearen partez, *Egunkaria* itxita dago eta zauriak ez» hitzekin amaitu zuten *Mendian Gora* abestiaren doinuaren egindako aurreneko sorta. Adierazpen askatasuna aldarrikatu zuten, inkomunikazioa salatu eta euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatu. Koplak ziren bigarren sortakoak, *a capella*-ko duon «askeak izan nahi dugu» esanez amaitu zuten Zakilixuten gorabeherez osaturikoak.

Ez ziren bi horiek izan ekitaldian agertu ziren bertsolari bakarrik. Xebastian Lizaso—*Egunkaria*-ko langile ohia—, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio ere aritu ziren kantuan. Herri egiturak indartzeko lanean jarraitzeko deia egin zuen Lujanbiok, bigarren bertsoan, amaiera honekin: «Etorrizuna ezin da soilik / ilusiotik eraiki». Atzera begiratu zuten aurrera so jarri zen Lizaso ere: «Amesgaiztotik esnatu gera / eta nekatuta gaude / egusentziak ematen duen / itxaropenaren ja» (Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Ubeda anaiak *Zuentzat* abestia kantatzen. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso. JON HERNAEZ / ARG



Jon Maia. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Katamalo taldeko kideak. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Gose taldeko kideak. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

(Aurreko orrialdetik dator)

be». Opari bat ere eman zuten bertsolariak Euskaldunara: duela hogegei urte, *Egunkaria* sortu zenean, Igor Elortzak euskarazko lehenengo kazetari buruz botatako bertsoen azken puntuak jarri zituzten bideoan. «Bertsolariak umetan behintzat / egia esaten dute» abestuz aurkeztu zituen Egañak.

Bi saio horien artean hitza ere izan zen. Duela zazpi urte hain ezagun egin zen *Egunkaria aurrera* lelodun elastiko urdina jantzita agertu zen Lorea Agirre langile ohia. Berak idatzi zuen *Gezurra ari du* liburua, *Egunkaria*-ren itxieraren kronika. «Dena gezurra zen. Horixe da egia», esan zuen. Langile ohiek «mundua sortu eta jaso» egiten zutela azaldu zuen, «euskararen herriarentzat, Euskal Herriarentzat, euskaraz eta euskaratik. *Egunero. Berria*».

*Egunkaria* itxi zuten bihar-munean, langileek egin zuten *Egunero*-ren lehen aleko titularra ekarri zuen gogora: *Itxia baina ez isildua*. Inoiz idatzi nahi ez zuten titularra zen, baina «inoiz idatzi dugun beteena». Ez isiltzen lagundu dieten guztiei eskerrak emanez amaitu zuen, *Egunkaria*-ko langile guztien izenean.

### Txistu eta txalo lehia

Fermin Muguruza agertu zen, besteak beste, zazpi urteko ibilbi-

dearen errebasoa egiten zuen bideoan. Madrilen, Amaia Zubiriaren, Benito Lertxundiren eta hiruren izenean, Musikaren Sariatzen euskarazko kanta onenaren saria jasotzen agertzen zen, elastiko urdinarekin. *Egunkaria*-ren itxiera salatu zuen hitza eman ziotenean, eta txistuz hartu zuten hori hango entzuleek. Euskaldunako publikoak txaloz erantzun zien Ferminen hitzei, txistu hotsa ezalitz.

Kantu gehiago etorri ziren gero. Katamalo taldekoek *Basatzetan garbi* eskaini zuten, Go-tzon Barandiaranek Jose Luis Otamendiren *Aritmetika Ariketak* poema irakurri ostean. Aitor Gorosabelek ere astindu zuen gitarrak. *Bertso berriak* herri kanta abestu zuen aurrena, eta *Zu zara Egunkaria* abestu ostean ezkutuatu zen agertokitik, «eskerrik asko, *Egunkaria!*» esanda.

Jon Maia *Egunkaria*-ko langile ohiak dantza egin zuen gero; *Sakonki maite dut* koreografia osatu zuen, Iñaki Salvadorren musika eta Mikel Laboa zenaren aho-tsaren konpasean.

Gosekoek *Surik bai* abestia jo zuten. «Ez ahaztu, hemen torturatu den da» esanez agurtu zen Ines Osinaga abeslaria. Ubeda anaiak Deabruak Teilatuetan taldean jozen zuten *Zuentzat* abestu zuten, gitarrak baten laguntzaz. «Milesker. *Egunkaria* aurrera!» esanda agurtu ziren.

Abestiak amaitu zirenean, *Egunkaria* *auziko* Babes Taldearen txanda iritsi zen. Agertokira igo ziren Ainhoa Etxaide, Adolfo Muñoz, Garbiñe Biurrun, Xabier Arzalluz, Laura Mintegi, Carlos Garaikoetxea, Baltasar Errazti, Jesus Uzkudun, Koldo Gorostia eta Xabier Mendiguren. Azken horrek hitz egin zuen guztien izenean, Martin Ugaldek *Egunkaria*-ko lan taldeari behin baino gehiagotan kontatu zien alegia Euskaldun batutako guztiei eskainiz. Torrealdaik bere hitzaldian egin bezala, elkartuta aritzearen garrantzia azpimarratu zuen Mendigurenek ere. Horixe izan da, haren iritzian, Babes Taldearen ezaugarri nagusietako bat ere, elkarlan horretan izan duten aniztasuna. «Pentsaera eta sektore guztietako ahotsak bat eginik» aritzeak sinesgarritasuna eman die, haren irudiko, Babes Taldearen ekimenei. Zazpi urte hauetan, «fedez eta zalantzaz» bizi izan dituzte «hainbat une nekagarri». Emaitza ikustean, ordea, ondorio batetara iritsi dira: «Merezi zuten elkarturik aritzea».

@ Gaiari buruzko informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bideoak, irudiak eta abar daude ondorengo webguneetan:  
[www.egunkaria.info](http://www.egunkaria.info)  
[www.berria.info/egunkaria](http://www.berria.info/egunkaria)



Aitor Gorosabel, Su Ta Gar taldeko abeslaria. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Babes Taldeko kideak. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Eako Pello Urizar eta Ikerne Badiola, ABko Mertxe Colina, Iñigo Iruin abokatua, Xabier Agirre eta Markel Olano Arabako eta Gipuzkoako ahal-dun nagusiak, ELAko Adolfo Muñoz, Xabier Arzalluz eta Garbiñe Biurrun, besteak beste. JONHERNAEZ / ARP



LABeko Ainhoa Etxaide eta ezker abertzaleko Arantza Urkaregi eta Rufi Etxeberria, besteak beste. JONHERNAEZ / ARP



Ramon Etxezarreta, Alberto Iñurrategi, Alternatibako Oskar Matute, EAJko Belen Greaves eta Iñigo Urkullu. J.HERNAEZ / ARP



Txema Ramirez de la Piscina EHUko irakaslea eta Iñaki Goirizelaia EHUko errektorea, besteak beste. JONHERNAEZ / ARP



Jose Angel Iribar, Joan Mari Irigoien, Anjel Lertxundi eta Laura Mintegi, ekitaldia hasi aurretik, kafe orduan. JONHERNAEZ / ARP



Xabier Agirre, Josune Ariztondo, Jose Luis Bilbao eta Belen Greaves, besteak beste, ekitaldira sartzen. JONHERNAEZ / ARP

# Askotariko euskal mundua

Elkarren ondoan gutxitan ikusten direnak elkartu zituen eskertza egunak: EAJ, ezker abertzalea, EA, EB, AB, Aralar eta Alternatibako ordezkariak. PSE-EEkorik ere izan zen.

## Aitziber Laskibar

**E**lkarrekin bihurtu zen eskertza eguna. Gela berean batu ziren elkarren ondoan gutxitan ikusten direnak, elkarri egindako eskaera eta akusazioak sarritan, eta esker hitzak gutxitan entzuten diren honetan. Ekitaldia hasi aurretik, elkarren ondoan egon ziren, kafearen bueltan, EAJko, EAKo, ezker abertzaleko, EBko, Alternatibako, Aralarreko eta ABko ordezkariak. Al-derdienaren izenean izan ez arren, izan zen PSE-EEko kiderik ere. ELA, LAB eta CCOO sindikatuek ere, buruzagi nagusiak bidali zituzten. Patronalaren ordezkariak ere ikusi ziren. Euskalduna jauregiko areto nagusian, gizarte eragileetako ordezkari ugari batu ziren; euskalgintzan aritzen direnak, asko. Epailak egon ziren, eta abokatuak. Idazleak, kantariak, eskultoreak, aktoreak. Oi-

nari politikoen gainean eraikitako beste auzi batzuetan auzipetutakoak ere bai. Horiek guztiak, besteak beste. Hori guztiak, beste bi mila bat herritarren ondoan.

## Berri on batek batuta

Ekitaldi nagusia hasi baino ordu-bete lehenago bildu ziren OPIak horretarako prestatutako E-4 gelan. Kortesia hitzak, kortesia agurrak entzun ziren, elkarrizketa taldetxoak sortu ziren, baina ohiko taldeak euren artean nahastu gabe. Poza izan zen hizketagari nagusia, poz keinu agerikorik erakutsi ez bazuten ere. «Behingoagatik berri on baten inguruan batu gara, ospatzeko», entzun zitekeen agurren artean. Giroa, ordea, «kontrolatua» izan zen. **Andoni Egaña** bertsolariak ekitaldi nagusiko bertsoan ederki azaldu zuen bezala: *Erreparatzen egon naiz ni lehen| Euskalduna laugunean| 'Kaixo' ta 'Tepe', bosteko, muzu|*

*hainera euskaldunean| dena hain modu kontrolatuan| dena hain modu sunean| zein txarrak garen sarritan poza| adierazteko unean| baina begitan azaltzen zaigu| gordezin dugunean.*

Horixe izan zen giroa OPIen kafearen gunean, politikariak nagusi ziren gelan. Ordezkariak ohi ez bezain askotarikoak izateak eragingo zuen hori, agian. Zenbaitean elkarri muturka ibiltzen direnak elkarren ondoan egoteak.

## Politikari ugari

Punta-puntako ordezkariak zabala bidali zuen EAJk. **Iñigo Urkullu** EBBko presidentearekin ziren **Belen Greaves** idazkaria, **Andoni Ortuzar** BBBko presidentea, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ahal-dun nagusi **Jose Luis Bilbao**, **Markel Olano** eta **Xabier Agirre**, Bizkaiko Kultura diputatu **Josune Ariztondo**, eta Eudeleko presidente **Jokin Bildarratz**. **Xabier Arzalluz** EBBko presidente ohi ere joan zen eki-

taldira, baina bere aldetik, eta Babes Taldearen izenean igo zen ohoitzara gero.

Eusko Alkartasunetik, **Pello Urizar** idazkari nagusia, **Ikerne Badiola** Komunikazio arduraduna eta **Carlos Garaikoetxea** buruzagi ohi izan ziren, besteak beste. Ezker abertzaleko **Rufi Etxeberria**, **Arantza Urkaregi**, **Jose Ramon Etxebarria** eta **Karme Aierbek** ere parte hartu zuten ekitaldian. Baita ABko **Mertxe Colina** ere. Aralarreko Bizkaiko Zuzendartzako kide **Jon Salaberria** eta **Agustín Sarrionandia** eta Iratzarriko kide **Leire Martinez** ere han ziren.

Ezker Batuko koordinatzaile **Mikel Arana** OPIen gunean izan zen, **Javier Madrazo** koordinatzaile ohi lagun zuela. Alternatibako ordezkariak, kafegunearen atarian egin zuten topo haien alderdikide ohiekin. Laguntasuna adieraziz agurtu zuten elkar Aranak eta **Oskar Matutek**, irribarretsu.

PSE-EEK ez zuen ofizialrik ordezkari bidali. Ezta Jauriartzak ere. Baina ekitaldian izan zen **Ramon Etxezarreta** Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohi.

Ekonomiari lotutako kideei dagokionez, eskertza jaialdian egon

ziren, besteak beste, ELA, LAB eta CCOO sindikatuetako buru **Adolfo Muñoz**, **Ainhoa Etxaide** eta **Jesus Uzkudun**. **Mario Fernandez** BBK-ko presidentearekin eta **Baltasar Errazti** Confebask-eko presidente ohiarekin partekatu zuten aterpea.

Bestalde, **Iñaki Goirizelaia** EHUko errektoreak, **Andres Urrutia** Euskaltzaindiako presidentek eta **Joan Mari Irigoien** idazleak ez zuten hutsik egin. Eta artista gehiagok jarraitu zuten ekitaldia. Besteak beste, **Nestor Basterretxea** eskultoreak, **Mikel Martinez** aktoreak eta **Anari** kantariak. Lokarriko **Paul Rios** ere jendartean zen.

## Gainontzeko auziak

*Egunkariaren* aurkako auzia abiatu zen oinarri berekin sortutako beste hainbat auzitan auzipetuta dauden kide ugari ere joan ziren Euskaldunara. Han izan ziren, besteak beste, *Udalbiltza auzia* dela-eta laster epaituko dituztenak, **Maribi Ugarteburu**, **Loren Arkotxa** eta **Joseba Garmendia**. Guardia Zibilak egindako azken operazioan atxilotutako abokatu lankide **Ainhoa Baglietto** eta **Aiert Larrartek** ere jarraitu zuten saioa.

# «Gutxiegi egiten genuen»

Auziak iraun duen bitartean lan ikaragarria egin dute herri batzordeetan. Antolatze eta egoerari erantzuteko beti prest izan dira. Eskertza jaialdian, han behar zuten.

## Gurutz Izagirre

**P**ozik egindakoarekin, gutxiegi egiten genuela uste genuen». Herri batzordeen ordezkariak batek ireki zuen eskertza jaialdia Euskaldun, txalaparta doinuen ostean. Agus Perezek Bilboko batzordearen izenean hitz egin zuen, eta hitz horiekin amaitu zuen hizketaldia. 2003ko otsailaren 20an, itxieraren berri izatearekin batera ehunka herritan hasi ziren batzordeak sortzen. Itxiera salatu eta atxilotuak aska zituzten eskatzeko lehenik, euskarazko beste egunkari bat plazaratu jartzeko gero. Eta epaiketa egingo zela jakitean, auzipetuei babesa eskaintzeko eta absolutzioa eskatzeko azkenik. Eskertza ekitaldian euren lekua behar zu-

ten, eta Bilboko batzordearen izenean aletutakoa beste batzorde askoren ispilua izan zen.

Ezinen eta ilusioaren artean mugitu ziren batzordeak. Zerbait egin behar zela pentsatu, eta Bilboko hainbat auzotako batzordeak laster hasi ziren elkarlanean, Santutxu, Errekalde, Deustu: «Bilboko kaleetako barandak *Egunkaria libre* zioten pankartez josi genituen, bonuak eta elastikoak saldu genituen, kantujira egin genuen». Guztia, «erail eta iraindu» zutenari erantzuna emateko egin zutela esan zuen Agus Perezek igandean, batzordeen izenean Euskalduna jauregian hitza hartu zuenean.

## Eraginaren itzal luzea

Itxierak eragin handia izan zuen Zarautzen ere (Gipuzkoa). Are gehiago 80ko hamarkada amaie-

ran, euskarazko egunkaria sortzeko Egunkaria Sortzen-en ibilitako jende ugari zegoelako Zarautzen. Eta euskarazko egunkari baten proiektuan sinesten zutela-

ko, hutsetik, herritarrek jarritako diruarekin sortutakoa bat-batean nola birrindu zuten ikusteak erantzutera eta antolatzaera eraman zuen jendea. «Kolpe handia izan zen itxiera» Paloma Gabirondo Zarauzko herri batzordeko kidearen esanetan. Itxiera salatze eta euskarazko beste kazetabate kalean jartzeko buru-belarri egin zuten lan batzordean. Hura lortu zela ikusita, pozik geratu zi-

ren batzordean egindako lanarekin. Auziak egingo zuten bidearen zain geratu ziren gero.

Epaiketa egingo zela jakitean ez zuten dudarik egin berriro antolatze eta ahal zen heinean laguntzeko. Absolutzioa «lasaigarria, merezi zutena» izan dela uste du Gabirondok. Baina kezak badirau. Auzi ekonomikoak zein bide egingo duen ikusi behar dela dio.



Euskaldunak jendea zutik, auzipetuak oholtzara igo zirenean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

## Esker onen trukea

Euskal Herritik kanpo Espainian eta Katalunian, bereziki, 'Egunkaria'-ren aldeko batzordeak elkartasun uholde erraldoia sortu dute zazpi urteotan.

## G.I.

**E**skerrak jaso beharrean eman egin behar lituzkeela esan zuen David Fernandez Egunkariaren Aldeko Kataluniako batzordeko kideak, Euskaldunak hitza hartu zuenean. «Irakasgaia zuek eman diguzue. Erakutsi diguzue historia egin daitekeela inquisizioarekin. Salbuespenezko logikak garai daitezkeela erakutsi diguzue. Eskerrik asko gerra bat irabazi izanagatik». Katalanez egin zuen ia jardun osoa, baina haren mezuak ez ziren ustekabeen pasatu. Itxierako ustea izan zuen gogoan. Angel Acebes orduko Espainiako Barne ministroaren hitzak gogorarazi zituen, euskal kulturaren mesedetan egindako operazioa izan zela esan baitzuten itxieraren egunean.

*Egunkaria auzia* Kataluniako kontzientzia kolektiboan sartu dela uste du. 2003ko testuingurua

du gogoan. Katalunian PPren gobernuaren babesarekin abiatu zuten Iraken aurkako gerrak erantzun zabala izan zuen han. Eta Euskal Herriari zegokionez, 1998an, *Egin* egunkariaren itxiera oso gogoan zuten. Eskubide zibil eta politikoen urratzeak gora zihozela ikusita, eta hizkuntz eskubideen aurka ere nola egiten ari ziren ikusita, *Egunkaria*-ren itxierak Katalunian *shock*-a eragin zuela uste du. Hargatik Kataluniako Parlamentuaren %85ak, eta hedabide eta sindikatu gehienek salatu zuten itxiera. Baina horiek ez ziren bakarrik etorri. Batzordeak egin zuten lan esker-gari esker baizik. Horregatik, bai Kataluniako bai Espainiaren sortutako batzordeek harrera berezia jaso zuten Euskaldunak. Txalo zaparrada beroa jaso zuten batzuek zein besteek.

## «Zer axola zaizue?»

Espainian hainbat tokitan sortu ziren batzordeetan zailago izan

dute bidea. Epaiketa salatze eta karretaratze bat egitea debekatu zieten Madrilgo batzordeari, eta fiskalak honakoa esaten zien: «Zuei zer axola zaizue han gertatzen dena?», gogora ekarri zuen Pedro Casasek, batzordeko kideak. Eskubide urraketa horiek ematen diren lekuan emanda ere salatu beharrekoak direla iritzi-ta, aurrera egin zuten protestarekin. «Madril ez da bakarrik Auzitegi nazionala eta torturak», gaineratu zuen. Valladolideko batzordeko Fernando Valiñok beste eragozpen bat ikusi du auziaren berri emateko orduan: «Desinformazioa garaitzea da zailena». Eta Euskal Herriari dago-kionez, handia dela iritzi dio. Baina ziur da absolutzioak horretan ere lagunduko duela. Natxo Escortu Aragoiko batzordekoa ere bat dator. «Euskal Herriaz hitz egiteko, gertatzen diren eskubide zibil eta politikoen urratzeak salatze eta beldurraren kultura garaitzeko bultzada da epaia».



Kataluniako batzordeko kidea, hitza hartzerakoan. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



Aragoiko, Madrilgo eta Valladolideko Egunkariaren Aldeko Batzordeko kideak, oholtzara gainean, hitza hartu zutenean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS